

CALASANZ KIDEAK

Nori zuzenduta: 12 - 15 urte bitarteko gazteak

Gaia: Sustrai sakonek munduan injustiziaren "uhin sismikoen" aurrean erreakzionatzeko indar etikoa ematen digute.

Helburua: Gazteen kontzientzia kritikoa eta konpromiso aktiboa sustatzea.

Jarduera: Sismografo soziala

Jardueraren garapena:

Jarduera honek sismografoaren metafora erabiltzen du nerabeek identifika dezaten bidegabekeriak (sismoak) nola eragiten dioten munduari, eta nola beren fede-sustraiak eta balore eskolapioak erantzun irmo eta solidarioa ematen dieten hauei.

Helburura iristeko, ikuspegi hauek landuko dira:

- **Hausnarketa etikoa:** Egungo munduan bidegabekeriaren "uhin sismikoak" identifikatzea eta izendatzea.
- **Identitate Eskolapioa:** "Sustraiak" (Jesus eta Calasanz) Eraldaketa Sozialaren erantzunaren oinarri direla ulertzea.
- **25 urteko konpromisoa:** Calasanz Kideak-eko gazte gisa beren zerbitzu- eta misio-sustraiak zabaltzeko egin ditzaketan ekintza zehatzak identifikatzea.

Materialak eta Prestaketa

- **Sismografoaren murala:** Hiru atal nagusietan banatutako kartulina edo arbela:
 1. **INJUSTIZIA/BIDEGABEKERIA** (Sismoa)
 2. **ERREAKZIOA** (Emozioa/Haustura)
 3. **SUSTRAIAREN ERANTZUNA** (Ekintza eskolapioa)
- **"Uhin sismikoen" txartelak:** 5-6 txartel, benetako gizarte-arazoei buruzko titular edo irudiekin (migrazio-krisia, haur pobrezia, kutsadura larria, indarkeria, langabezia, desgaitasunagatik bazterketa, kultura, arraza edo erlijioa...).
- **"Calasanzen esaldiak" fitxak:** 4-5 aipu labor San Jose de Calasanz-ek esandakoak edo Bibliatik ateratako Pobrean eta Hezkuntzaren aldeko Aukera azpimarratzeko esaldiak.
- Kolore ezberdinetako errotulagailuak eta koloreetako post-itak.

Jardueraren Garapena (60 minutu)

I. Sustraiak eusten gaitu (5 minutu)

1. **Sismografoari buruzko sarrera:** Azaldu sismografo batek Lurraren dardarak neurtzen dituela. Gure munduan bidegabekeriak eragiten dituzten dardarak neurtuko ditugu.

CALASANZ KIDEAK

2. **Oinarria:** "Zerk saihesten du eraikin bat sismo batekin erortzea?" (Zimenduak/sustraiak). Gure **Sustraiak (Jesus, fedea, eskolapioen baloreak)** egonkortasuna ematen digutela azpimarratzen dugu, minaren aurrean beldur edo axolagabekeria ez erortzeko.
3. **Lema eta urteurrena:** Gogoratu Itaka Escolapios-ek **25 urte** daramatzala "zerbitzu-zimendu" izaten, eta ez dela erori bidegabekeriaren aurrean, baizik eta **sustraiak zabaldu** dituela laguntzeko.

II. Uhin Sismikoak eta Erreakzioa (20 minutu)

1. **Bidegabekeriaren azterketa:** Taldea talde txikietan banatu ondoren, talde bakoitzari "**uhin sismikoen**" txartel bat banatuko zaio. Eskatu irakurtzeko eta aztertzeko ea beren errealitatean bidegabekeria horietakoren bat gertatzen den.
2. **1. atala: INJUSTIZIA (Sismoa):** Talde bakoitzak egokitu zaion arazoa idatzi edo marraztu beharko du muralaren "INJUSTIZIA" atalean.
3. **2. atala: ERREAKZIOA (Haustura):** Injustizia horrek eragiten dien **erreakzio emozionalari** buruz hausnartzeko eskatu zaio taldeari: *¿Zer sentitzen duzu? (Amorrua, tristura, frustrazioa, ezinegona).* Post-itak erabiliz, identifikatu dituzten emozio horiek muraleko "ERREAKZIO" atalean pegatuko dituzte.
 - o **HELBURUA:** Emozioak balioztatzea eta axolagabekeria ez dela aukera bat erakustea.

III. Erantzuna sustraietik (15 minutu)

1. **Oinarrizko hitza:** Talde bakoitzari "**Calasanz-en esaldiak**" (edo zerbitzuko aipamen biblikoa) fitxa banatuko zaio

Calasanz-en esaldiak:

"Poned todo vuestro cuidado en hacerles amar a Dios, con el fin de que se salven"

"Gran obra de misericordia es enseñar a los ignorantes, y obra aún mayor es enseñar a los pobres."

"No hay cosa más noble ni más provechosa que cooperar con Dios en la salvación de las almas."

"El primer impulso de caridad es la compasión, pero la acción es su cumplimiento."

2. **Galdera Gida:** "Nola erantzuten dio gure Sustraitik datorren esaldi honek aztertzen dugun injustizia sismoari?"
3. **3. atala: SUSTRAITIK ATERATZEN DEN ERANTZUNA (Ekintza Eskolapioa):** Talde bakoitzak 2.ataleko **emozio bat** Calasanz-en esaldiak **inspiratutako ekintza** bihurtu behar du, 3. atalean idatziz.

CALASANZ KIDEAK

Sismoa (Injustizia)	Erreakzioa (Emozioa)	Sustraiaren erantzuna (Ekintza eskolapioa)
Hezkuntza-pobrezia (eskolarik gabeko haurrak)	Frustrazioa, tristura	<i>Calasanz-en esaldia:</i> " Gran obra de misericordia es enseñar a los ignorantes..." -> Ekintza: Itakako proiektu baterako eskola-tresnak biltzeko kanpaina bat antolatzea.
Ingurumenaren kutsadura	Aморrua, ezintasuna	<i>Zita biblikoa:</i> "Zaindu sorkuntza..." -> Ekintza: Ikastetxean edo auzoan birziklatze edo garbiketa ekintza bat bultzatzea, gure etxe komunaren zaintzari buruz heziz.

IV. Konpromisoa eta itxiera (20 minutu)

1. **25 urteko mugarrria:** Gizarte eta hezkuntza zentroyen fitxa ikusi ([hemen](#)). Proiektua aurkeztu, oinarritik bidegabekeria jakin batzuen aurrean Itaka-tik eman den erantzunetako bat bezala (obra mota horien jatorria, helburuak eta erronkak bereziki aztertuz).

Zerbitzuaren **25 urteko historian** pentsatuz, misioaren jarraipenaren parte izateko konpromisoa hartzeko eskatuko diegu gazteei.

2. **Konpromiso pertsonala:** Gazte bakoitzak, isiltasunean, ohar bat idatzi behar du aste honetan **"Nire Sustraiа zabaltzeko"** ekintzaren batekin ("Jangelan boluntarioa izatea", "Baztertuta dagoen ikaskide bat defendatzea"...).
3. **Azken otoitza:** Konpromiso-ohar guztiak jaso eta sinbolikoki Jesus Sustraiaren oinarrian jarri. Eskerrak eman, bidegabekeriari erantzuteko aukera ematen dien Sustraien indarrarengatik.